

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

11/2026 Foru Araua, maiatzaren 31koa, onartu du, zeinaren testua hitzez hitz honako honi erantsi baitzaio. Foru Arauak Auzo Harremanak sustatzeko ekimenetarako eta Arabako toki erakundeetan gauzatzeko laguntza obra txikiak programak arautzen dituen ekainaren 27ko 21/2013 Foru Araua aldatzekoa

Jakinarazten dut Arabako Batzar Nagusiek 2026ko maiatzaren 31ko osoko bilkuran onetsi dutela, eta nik aldarrikatzen eta agintzen dut argitara dadila “11/2026 Foru Araua, maiatzaren 31koa, onartu du, zeinaren testua hitzez hitz honako honi erantsi baitzaio. Foru Arauak Auzo Harremanak sustatzeko ekimenetarako eta Arabako Toki Erakundeetan gauzatzeko laguntza obra txikiak programak arautzen dituen ekainaren 27ko 21/2013 Foru Araua aldatzekoa”

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 31

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

11/2026 FORU-ARAU, MAIATZAREN 31KOA, AUZO HARREMANAK SUSTATZEKO EKIMENETARAKO ETA ARABAKO TOKI ERAKUNDEETAN OBRA TXIKIAK GAUZATZEKO LAGUNTZA PROGRAMAK ARAUTZEN DITUEN EKAINAREN 27KO 21/2013 FORU ARAUA ALDATZEEKO

ZIOEN AZALPENA

Auzo Harremanak Sustatzeko Ekimenetarako eta Arabako toki erakundeetan obra txikiak gauzatzeko laguntza programak arautzen dituen ekainaren 27ko 21/2013 foru araua aldatzeko proposamenaren xedea da Arabako Lurralde Historikoko toki-erakundeei zuzendutako laguntza-programa horien erregulazioa eguneratzea eta hobetzea, eta programa indarrean jarri zenetik metatutako esperientziari zein programa horiek praktikan aplikatzean hautemandako beharrei erreparatzea.

Aldaketak eutsi egiten dio indarrean dagoen arauaren funtsezko filosofia eta egiturari, eta hainbat aldaketa sartzen ditu, eraginkortasuna, argitasuna eta segurtasun juridikoa indartze aldera, eta toki-erakundeek eta foru-administrazioak berak errazago aplikatu eta kudeatzeko aukera izan dezaten.

Egindako aldaketa nagusien artean, hauek dira azpimarragarrienak: diruz laguntzeko moduko jarduketan gehieneko zenbatekoak eguneratzea, zenbateko horiek obrak eta azpiegiturak egiteko kostuen bilakaerara egokituta; dirulaguntza jaso dezaketen jarduketan tipologia berrikustea eta handitzea; eta laguntzen kuantifikazioari eta diruz lagun daitekeen aurrekontua zehazteari buruzko irizpide jakin batzuk egokitzea.

Era berean, aldaketa honek doikuntzak egiten ditu gunen anitzekoak diren toki-erakundeei aplikatu beharreko araubideari dagokionez, helburu jakin batekin: programen funtzionamendua Arabako Lurralde Historikoko Lurralde- eta administrazio-errealitateara egokitzea.

Halaber, hainbat alderdi berrikusi eta argitu egin dira laguntzak jasotzeko betekizunekin, baztertzeko kasuekin eta eskaerei aplikatu beharreko irizpideekin lotutakoak, arauaren interpretazio homogeenagoa eta programen kudeaketa arinagoa eta eraginkorragoa bultzatzeko.

Azken batean, aldaketaren helburua da guztiz ezarrita dauden eta Arabako tokiko entitateek asko erabiltzen dituzten programa batzuk sendotzea, eta programa horiei erregulazio egunera-tuagoa eta argiagoa ematea, bai eta Arabako Lurralde Historikoko tokiko erakunde horiek gaur egun dituzten beharrezanean egokituagoa dagoena.

1. artikulua. 4. artikulua (Izaera) aldatzea. Honela geratuko da idatzita

Programa honen kargura ematen diren laguntzak jaso ahal izango dituzte 6. artikuluan adierazitako tipologia daukaten obrek (eraikuntza-garrantzi gutxikoak eta teknikoki errazak), baldin eta auzolan sistemaren bidez egiten badira, hau da, erakunde onuraduneko biztanleen eskulana eta tresnak edo ibilgailuak erabilia egiten badira. Erremintak eta/edo makineria alokatu ahal izango da. Halaber, langile espezializatuen eskulana kontratu ahal izango da, baldin eta:

a. Kostua, BEZa barne, eskatutako jarduketaren guztizko zenbatekoaren ehuneko 10 baino gehiago ez bada, eta

b. Jarduketak auzolan-izaerari eusten badio. Horretarako, kontratatutako eskulanaren ekarpena puntuala izango da, eta erakundeko biztanleek gauzatu beharko dute jarduketaren zatirik handiena. Eskatutako jarduketaren guztizko kostua (materialak erostea + erremintaren edota makineriaren alokairua + langile espezializatuen eskulana), BEZa barne, ez da 30.000,00 eurotik gorakoa izango.

2. artikulua. 5. artikulua (erakunde onuradunak) aldatzea. Honela geratuko da idatzita

Auzo harremanak sustatzeko ekimenen programako laguntzak honako erakunde hauek jaso ahal izango dituzte:

a. Gune anitzeko udalak, udalari zuzenean atxikitako biztanle-guneetan jarduerak egiteko, gune horiek Arabako Foru Izendegian berariaz hala jasota baldin badaude eta 500 biztanle baino gehiago ez badituzte.

b. 500 biztanle baino gutxiagoko gune bakarreko udalak.

c. Arabako kontzejuak.

3. artikulua. 6. artikulua (Obren tipologia) aldatzea. Honela geratuko da idatzita

Programa honetako laguntzak jaso ahal izango dituzte honako obra hauek, betiere auzolan bidez gauzatzeko modukoak baldin badira:

a. 9/2017 Foru Arauaren 7. artikulua 2. apartatua jasotako oinarrizko azpiegiturekin lotutako edozein jarduketa. Desjabetze-gastuak eta ordainsariak kanpoan geratzen dira.

b. 9/2017 Foru Arauaren 7. artikulua 3. apartatua jasotako ekipamenduekin lotutako edozein jarduketa. Kanpoan geratzen dira lursailak edo eraikinak erostea, bai eta ordainsariak ere.

Udalek egindako eskaeren kasuan, diruz laguntzeko modukotzat joko dira 7. artikuluko 3. apartatuko A. puntuan jasotako udal-esparruko, udalarteko edo tokiz gaindiko ekipamenduak. Kontzejuak egindako eskaeren kasuan, diruz laguntzeko modukotzat joko dira 7. artikuluko 3. apartatuko B. puntuan jasotako toki-esparruko ekipamenduak.

c. Eraikinetan egindako edozein motatako jarduketak, elementu txiki deiturikoei dagozkienak (garbitegiak, uraskak, iturriak, errota...).

d. Aisialdi-, jolas- eta olgeta-guneetan egindako jarduketak.

e. Hiri-altzariak instalatzeko jarduketak.

f. Herria apaintzeko edo edertzeko jarduketak.

g. Bideak, bidexkak, errekek, ur-bazterrak eta ureztatze-ubideak garbitzeko eta mantentzeko obrak.

Deialdiaren oinarri arautzaileetan diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak sartu ahal izango dira, aurretik adierazitako gauzatze-kontzeptuak ezabatu gabe.

4. artikulua. 7. artikuluko (Laguntzen zenbatekoa) 1. eta 2. apartatuak aldatzea eta 4. apartatua gehitzea. Honela geratuko da idatzita

1. Programa honen kargura emandako laguntzak diruz laguntzeko moduko aurrekontuaren ehuneko 100erainokoak izan daitezke, artikuluko honen 2. apartatuan ezarritakoaren arabera zehaztuta.

2. Diruz lagundu daitezkeen aurrekontua zehaztea.

2.1. Zolatzeko edo argiteria publikorako argiak jartzeko obrak egiteko diren edo halako lanak jasotzen dituzten eskabideen kasuan izan ezik, diruz lagundu daitezkeen aurrekontua honela kalkulatu da:

a. Kontuan hartuko da materialen erosketaren zenbatekoaren ehuneko 100, BEZa barne.

b. Kontuan hartuko da erremintak edo makineria alokatzearen zenbatekoaren ehuneko 100, gehienez 5.000,00 euro arte. Ezin izango da diruz lagundu langile espezializatuen eskulana kontratatzeak dakarren kostua.

2.2. Zolatzeko obrak egiteko diren edo halako lanak jasotzen dituzten eskabideen kasuan, kontzeptu horri dagokion diruz lagundu daitezkeen aurrekontua lortzeko, zenbateko hauetatik txikiena hartuko da kontuan:

a. Aurreko 2.1 puntuan ezarritakoa aplikatuz lortzen den diruz laguntzeko moduko aurrekontua.

b. Akabera motaren arabera, zolatu nahi diren azalerei ondoren adierazten diren zoladura-moduluetatik dagozkionak aplikatzearen ondorioz lortutako zenbatekoa:

– Hormigoia: 37,66 euro/m².

– Maila estetiko handiagoko beste akabera batzuk: 54,91 euro/m².

– Zabor-legarra, hartxintxarra edo antzeko beste batzuk: 6,99 euro/m². Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ulertuko da prezio horietan sartuta daudela zoladura osorik egiteko behar diren material guztiak. Ez dira barne hartzen hura gauzatzeko behar diren erremintak eta/edo makinen alokairua, ezta elementu linealak edo puntualak ere, hala nola zintarriak, erretenak, txorkoak, hustubideak, eta abar.

2.3. Argiteria publikorako luminariak instalatzeko diren edo halako lanak jasotzen dituzten eskabideen kasuan, kontzeptu horri dagokion diruz lagundu daitezkeen aurrekontua lortzeko, zenbateko hauetatik txikiena hartuko da kontuan:

a. Aurreko 2.1 puntuan ezarritakoa aplikatuz lortzen den diruz laguntzeko moduko aurrekontua.

b. Jarraian adierazitako prezio unitarioa aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa:

– Berrerabilitako zutabe/beso/paldo gaineko luminaria: 392,66 euro/un. Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ulertuko da prezio horretan sartuta daudela argi-puntu bakoitza instalatzeko eta konektatzeko behar diren material guztiak. Ez da barne hartzen hura gauzatzeko behar den erremintaren eta/edo makineriaren alokairua.

4. Aurreko 2.2 eta 2.3 puntuetan aipatutako moduluak eta prezio unitarioak urtero eguneratu ahal izango dira deialdi bakoitzean, merkatuko batez besteko prezioekin bat etorriz. Era berean, deialdi bakoitzean modulu edo prezio unitario berriak sartu ahal izango dira.

5. artikulua. 8. artikuluko (Deialdia eta eskariak) 1., 3. eta 4. apartatuak aldatzea eta 5 apartatua kentzea. Honela geratuko da idatzita

1. Urtero, prozedura ebatzi aurreko ekitaldian, dagokion laguntza-deialdia onartuko da. Deialdia hemendik aurrera ALHAO argitaratuko da eta maiatzaren 15a baino lehenago ebatziko da urtero.

3. "Auzo Harremanak Sustatzeko Ekimenak" laguntza-programaren kargura, mota horretako laguntzak jaso nahi dituen toki-erakunde bakoitzak deialdi bakoitzeko laguntza-eskaera bakarra egin ahal izango du, salbuespen hauekin:

a. Arabako Foru Izendegian sartuta dauden biztanleguneak (kontzejuak ez direnak) zuzenean atxikita dituzten gune anitzeko udalek deialdi bakoitzeko bi eskabide egin ahal izango dituzte, gehienez, baldin eta eskabide horiek gune desberdinetan badaude eta era berean 5. artikulua a) apartatuan ezarritako betekizunak betetzen badira.

b. Arabako Foru Izendegian gune anitzeko kontzeju gisa jasota dauden kontzejuak gehienez bi eskabide egin ahal izango dituzte deialdi bakoitzeko, betiere eskabide horiek gune desberdinetan kokatuta badaude.

4. Aurreko apartatuan ezarritako muga gaindituz gero, baztergarrizat joko dira toki-erakundeak egindako eskaera guztiak.

5. 5. apartatua kentzea.

6. artikulua. 9. artikulua (Emakida araubidea eta hautatzeko irizpideak) aldatzea. Honela geratuko da idatzita

Eskabide guztiak jaso ondoren, lehia-printzipioarekin bat etorritik, kontuan har daitezkeen obra-eskaera guztien artean, aurrekontuko diru-izendapenaren arabera hartuko dira kontuan eskaerok. Hartara, obrak garrantzizko, komenigarri eta geroragarrizat joko dira, horien premia-eta/edo presa-egoeraren arabera; hori prozeduraren instrukzioaz arduratzen den arlo teknikoak baloratuko du.

1. Garrantzizkotzat jotakoak, gehienez, 60 punturekin baloratuko dira, eta komenigarritzat jotakoak, berriz, gehienez 40 punturekin.

2. Aurreko deialdian laguntza-programa honen kargura dirulaguntzarik jaso ez duten toki-erakundeak egindako eskaerak 10 puntu gehigarriekin sarituko dira.

3. Toki-erakunde eskatzailearen zuzenbidezko biztanleriaren arabera, deialdi bakoitza argitaratzen den aurrekontu-ekitaldiari dagokion Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza (FOFEL) aplikatzeko Toki Administrazioiko Sailak erabili dituen datuak kontuan hartuta, honako puntu hauek esleituko dira:

(a) 50 biztanle edo gutxiagoko zuzenbidezko biztanleria duten toki-erakundeak: 30 puntu.

(b) 50 biztanle baino gehiago eta 100 biztanle (100 barne) arteko zuzenbidezko biztanleria duten toki-erakundeak: 20 puntu.

(c) 100 biztanle baino gehiago eta 500 biztanle (500 barne) arteko zuzenbidezko biztanleria duten toki-erakundeak: 10 puntu.

(d) 500 biztanle baino gehiagoko zuzenbidezko biztanleria duten toki-erakundeak: 5 puntu.

4. Arestian adierazitako hiru irizpide horietako bakoitza aplikatuta lortutako puntuen batura hartuko da kontuan eskatutako eta babesteko modukoak diren obrei lehentasuna emateko. Hainbat eskabideren puntuazioan berdinketa gertatuz gero, deialdiaren aurre-aurreko bi ekitaldietan laguntza-programa honen kargura dirulaguntzarik jaso ez duten toki-erakundeak eskabideak hobetsiko dira. Horiek txikienetik handienera ordenatuko dira, zuzenbidezko biztanleriaren arabera. Eta hori aplikatu ondoren berdinketak jarraitzen badu, laguntza-programa honen kontura azken bost urteetan dirulaguntza gutxiago jaso duen erakundearen eskaera hobetsiko da.

Udalek egindako eskabideei dagokienez, eskatutako jarduketa Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen Foru Arauan jasotako ekipamenduei dagozkien eraikinetan egin nahi denean, zuzenbidezko biztanleriatzat hartuko da toki-erakundearen biztanleria osoa, eta gainerako jarduketetarako, berriz, horiek kokatuta dauden guneei dagokiena.

Kontzejuek egindako eskaeretarako, eskatutako jarduketa kokatzen den guneko edo gu- neetako biztanleria hartuko da zuzenbidezko biztanleriatzat, salbu eta eskatutako jarduketa kontzeju-geletarako bada; kasu horretan, kontzejuko biztanleria osoa hartuko da kontuan.

7. artikulua. 9 bis artikulua gehitzea (Baztertzeko irizpideak)

1. Honako jarduketa hauei dagozkien eskabideak baztergarritzat joko dira, baldin eta:

a) Bizileku iraunkorra duten biztanleak ez dauzkaten biztanleguneetan gauzatu nahi badira.

b) Indarrean dagoen hirigintza-plangintza betetzen ez badute.

c) Indarrean dagoen legeriaren edo aplikatzekoa den hirigintza-plangintzaren arabera sus- tatzailiek edo eragindako jabeek finantzatu edo ordaindu behar dituzten urbanizazio-gastuak jasotzen badituzte.

d) Hamabost urte baino gutxiagoko azpiegitura edo ekipamenduetan egin nahi badira, edo arlo horretan eskumena duen zerbitzuak azken hamabost urteetan kudeatutako laguntzen kon- tura diruz lagundu badira, honako salbuespen hauekin:

1. Mantentze-lanak edo konponketa puntualak egiteko jarduketak direnean.

2. Jaso ondoren hondamen larria jasan duten azpiegiturak edo ekipamenduak direnean, ezustekoen edo ohiko erabileraz bestelako arrazoiengatik gertatutako istripuen ondorioz.

3. Azken hamabost urteetan diruz lagundutako azpiegitura edo ekipamenduen kasuan, eman- dako laguntzen kargura jardun zen azpiegitura edo ekipamendu horietako elementuak eraisten, ezabatzen edo kaltetzen ez badira.

Era berean, d) puntu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko azken hamabost urteetan mantentze-lan edo konponketa puntualak egiteko jasotako dirulaguntzak.

e) Osorik edo partez partikularrei erabilera pribaturako laga edo errentan eman nahi zaizkien ondasunetan gauzatu nahi badira.

f) Jarduketa eskatzen duen toki-erakundearena ez den titulartasuna duten ondasunetan gauzatu nahi badira, edo haren erabilera haren alde lagata ez badago, erreferentziatzat hartuta dagokion deialdiko eskabideak aurkezteko epearen amaiera-data.

Horrela, f) puntu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ondasunen titulartzat hartuko da erakundea, baldin eta ondasun horiek haren izenean erregistratuta badaude jabetza-erre- gistroan, edo haren ondasunen inbentarioan agertzen badira. Era berean, erabilera-lagapena onartuko da gutxienez 16 urteko iraupena duenean, deialdiaren ekitaldiari dagokion urteko urtarrilaren 1etik aurrera zenbatzen hasita.

g) Dagokion deialdia ebatzi aurretik hasi edo gauzatu badira, salbu eta Arabako Foru Aldun- dian arlo horretan eskumena duen sailaren alde aurreko baimena badago.

h) Egitez, obra bat baino gehiago egitea dakartenak, nahiz eta eskabide-orri berean eta obra guztietarako baterako aurrekontu bakarrarekin aurkeztu.

i) Aurreko deialdian programa honen kargura dirulaguntza jaso duten baina toki-erakundeak uko egin diolako edo betebeharrak bete ez dituelako ordaindu ez zaien erakundeak egindakoak badira.

j) Gauzatzeko proiektu tekniko bat erredaktatzea beharrezkoa bada.

k) Gaian eskumena duen zerbitzuaren iritziz obra ez bada komenigarria edo auzolan-sistemen bidez egiteko modukoa, dela konplexutasun teknikoagatik, dela segurtasun-arrazoiengatik, dela beste edozein inguruabarrengatik.

l) Behar bezala justifikatutako arrazoiengatik, arlo horretan eskumena duen zerbitzuaren iritziz ez bada komenigarria eskatutako jarduketa gauzatzea.

m) Titulu honetan jasotako edozein baldintza betetzen ez badute.

2. Auzo harremanak sustatzeko ekimenetarako programan bideratzeko eskatu diren obrak ezin izango dira eskatu obra txikiak gauzatzeko programan, ekitaldi berari dagozkion deialdietan. Halakorik gertatuz gero, bi eskaerak baztertutaz joko dira.

3. Era berean, auzo harremanak sustatzeko ekimenetarako programan bideratzeko eskatutako obrak ezin izango dira eskatu obra eta zerbitzuen foru planaren programan. Halakorik gertatuz gero, auzo harremanak sustatzeko ekimenetarako programan egindako eskabidea baztertutaz joko da. Auzo Harremanak Sustatzeko Ekimenetarako dirulaguntza eman ondoren obra eskatzen bada Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren kargura, azken hori baliogabetu egingo da.

8. artikulua. 11. artikuluko (Dirulaguntza finkatu, ordaindu) 1. eta 2. apartatuak aldatzea eta 1 bis apartatua gehitzea. Honela geratuko da idatzita

1. Dirulaguntza honako agiri hauek aurkeztu ondoren ordainduko da:

a) Udalaren obra-lizentzia edo, obra-lizentziarik behar ez duten obren kasuan edo sustatzailea udala bera denean, udaleko hirigintza arloaren aholkularitza esleituta daukan teknikariaren aldeko txostena.

b) Eskatutako jarduketa gauzatzeko behar diren baimen sektorialak.

c) Gauzatutako jarduerari dagozkion fakturak, behar bezala banakatuta eta dirulaguntzaren erakunde onuradunaren izenean jaulkita.

d) Dirulaguntzaren onuradun den erakundeak fakturak onetsi izanaren egiaztagiria.

e) Erantzukizunpeko adierazpena, emandako laguntza justifikatzeko aurkeztutako dokumentazioa jatorrizko dokumentazioarekin guztiz bat datorrela dioena.

f) Auzolan-liburua, behar bezala beteta.

g) Deialdian eskatzen den beste edozein agiri.

Aurreko paragrafoan adierazitako dokumentazio guztia behar bezala aurkeztu ondoren, arlo horretan eskumena duen zerbitzuak txostena egingo du eta, hala badagokio, dagokion dirulaguntza ordaintzea proposatuko du.

1. bis. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi ondoren, emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 30eko aurrerakina eskatu ahal izango du toki-erakunde onuradunak. Aurrerakina berariaz eskatu beharko du erakunde onuradunak, eta aurrerakin-eskaera aurkeztu eta gehienez ere hilabeteko epean ordainduko da, betiere obrak hasi direla edo berehala egingo direla egiaztatzen bada.

Aurreikusitako aurrerakina bateragarria izango da artikulua honetan aurreikusitako gainerako ordainketekin, eta dirulaguntzaren azken ordainketa egitean deskontatuko da. Obra egiten ez bada edo dirulaguntza edozein arrazoiengatik errebotatzen bada, erakunde onuradunak jasotako aurrerakina itzuli beharko du, dirulaguntzak arautzen dituen foru-araudian ezarritakoaren arabera.

2. Deialdi bakoitzak ezarriko du zein den obrak amaitzeko eta dirulaguntza ordaintzeko eskatutako dokumentazioa aurkezteko azken eguna. Nolanahi ere, muga hori ezingo da izan deialdiari dagokion ekitaldiko abenduaren 31 baino geroagokoa, eta erakundeak ordainketa egiaztatzen duen dokumentazioa bidali beharko du dirulaguntza ordaintzen denetik gehienez ere bi hilabeteko epean.

9. artikulua. 12. artikuluko (Erakunde onuradunen betebeharrak eta erantzukizunak) 4. apartatua aldatzea eta 7. eta 8. apartatuak gehitzea. Honela geratuko da idatzita

4. Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak ez betetzeak berekin ekar dezake laguntza baliogabetzea, jasotako zenbatekoak itzuli beharra eta, hala badagokio, dirulaguntzak arautzen dituen foru-araudian aurreikusitako erantzukizunei aurre egin beharra.

7. Dirulaguntza jasotzen duten elementuak hamabost urtez mantendu behar dira, bai eta horien helburua edo erabilera ere, ezinbesteko arrazoi justifikatuak daudenean izan ezik.

8. Hala badagokio, arlo horretako zerbitzu eskudunari jakinaraziko zaio diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu direla.

10. artikulua. 13. artikulua (Dirulaguntza bat baino gehiago aldi berean) aldatzea. Honela geratuko da idatzita

Toki-erakunde onuradunek beste laguntza edo dirulaguntza batzuk lortzen badituzte programa honen kargura diruz lagundutako jarduketak finantzatzeko, laguntzak bateragarriak izango dira haien artean, salbu eta 9 bis 2 eta 3 artikuluan xedatutakoa aplikatzekoa denean, edo laguntza horiek jarduketaren kostuaren ehuneko 100 gainditzen dutenean. Kasu horretan, auzo harremanak sustatzeko ekimenetarako programaren kargura egingo den ekarpena ehuneko 100 horretara egokituko da.

11. artikulua. 14. artikulua (Lege araubidea) aldatzea. Honela geratuko da idatzita

Arau honetan eta deialdi bakoitzean berariaz arautzen ez diren alderdi guztietarako, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoa beteko da.

12. artikulua. 15. artikuluko (Izaera) 3. apartatua aldatzea. Honela geratuko da idatzita

3. Programa honetan diruz laguntzeko modukotzat hartu ahal izateko, jarduketek baldintza hau bete beharko dute: guztizko kostua ez izatea 40.000,00 eurotik gorakoa (BEZa barne).

13. artikulua. 17. artikuluko (Obren tipologia) 1. eta 4. apartatuak aldatzea eta 2., 3., 5. eta 6. apartatuak kentzea. Honela geratuko da idatzita

1. Obra hauek egiteko laguntza jaso ahal izango da programa honen bidez:

a. 9/2017 Foru Arauaren 7. artikulua 2. apartatuan jasotako oinarrizko azpiegiturekin lotutako edozein jarduketa. Desjabetze-gastuak eta ordainsariak kanpoan geratzen dira.

b. 9/2017 Foru Arauaren 7. artikulua 3. apartatuan jasotako ekipamenduekin lotutako edozein jarduketa. Kanpoan geratzen dira lursailak edo eraikinak erostea, bai eta ordainsariak ere.

Udalek egindako eskaeren kasuan, diruz laguntzeko modukotzat joko dira 7. artikuluko 3. apartatuko A) puntuan jasotako udal-esparruko, udalarteko edo tokiz gaindiko ekipamenduak. Kontzejuek egindako eskaeren kasuan, diruz laguntzeko modukotzat joko dira 7. artikuluko 3. apartatuko B) puntuan jasotako toki-esparruko ekipamenduak.

c. Eraikinetan egindako edozein motatako jarduketak, elementu txiki deiturikoei dagozkienak (garbitegiak, uraskak, iturriak, errota...).

d. Aisialdi-, jolas- eta olgeta-guneetan egindako jarduketak.

e. Hiri-altzariak instalatzeko jarduketak.

f. Herria apaintzeko edo edertzeko jarduketak.

g. Bideak, bidexkak, errekak, ur-bazterrak eta ureztatze-ubideak garbitzeko eta mantentzeko obrak.

Deialdiaren oinarri arautzaileetan diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak sartu ahal izango dira, aurretik adierazitako gauzatze-kontzeptuak ezabatu gabe.

2. 2. apartatua kentzea.

3. 3. apartatua kentzea.

4. Obra txikiak egiteko programaren kargura, mota honetako laguntzak jaso nahi dituen toki-erakunde bakoitzak laguntza-eskabide bakarra egin ahal izango du deialdi bakoitzeko, honako salbuespen hauekin:

a) Arabako Foru Izendegian sartuta dauden biztanleguneak (kontzejuak ez direnak) zuzenean atxikita dituzten gunen anitzeko udalek deialdi bakoitzeko bi eskabide egin ahal izango dituzte, gehienez, baldin eta eskabide horiek gunen desberdinetan badaude eta gutxienez eskabideetako bat zuzenean udalerrinari atxikitako guneren baterako bada.

b) Arabako Foru Izendegian gunen anitzeko kontzeju gisa jasota dauden kontzejuak gehienez bi eskabide egin ahal izango dituzte deialdi bakoitzeko, betiere eskabide horiek gunen desberdinetan kokatuta badaude.

Apartatu honetan ezarritako muga gaindituz gero, baztergarrizat joko dira toki-erakundeak egindako eskaera guztiak.

5. 5. apartatua kentzea.

6. 6. apartatua kentzea.

14. artikulua. 17 bis artikulua gehitzea

1. Honako jarduketa hauei dagozkien eskabideak baztergarrizat joko dira, baldin eta:

a) Bizileku iraunkorra duten biztanleak ez dauzkaten biztanleguneetan gauzatu nahi badira.

b) Indarrean dagoen hirigintza-plangintza betetzen ez badute.

c) Indarrean dagoen legeriaren edo aplikatzekoa den hirigintza-plangintzaren arabera sustatzaileek edo eragindako jabeek finantzatu edo ordaindu behar dituzten urbanizazio-gastuak jasotzen badituzte.

d) Hamabost urte baino gutxiagoko azpiegitura edo ekipamenduetan egin nahi badira, edo arlo horretan eskumena duen zerbitzuak azken hamabost urteetan kudeatutako laguntzen kontura diruz lagundu badira, honako salbuespen hauekin:

1. Mantentze-lanak edo konponketa puntualak egiteko jarduketak direnean.

2. Jaso ondoren hondamen larria jasan duten azpiegiturak edo ekipamenduak direnean, ezustekoen edo ohiko erabileraz bestelako arrazoiengatik gertatutako istripuen ondorioz.

3. Azken hamabost urteetan diruz lagundutako azpiegitura edo ekipamenduen kasuan, emandako laguntzen kargura jardun zen azpiegitura edo ekipamendu horietako elementuak eraisten, ezabatzen edo kaltetzen ez badira.

Era berean, d) puntu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko azken hamabost urteetan mantentze-lan edo konponketa puntualak egiteko jasotako dirulaguntzak.

e) Osorik edo partez partikularrei erabilera pribaturako laga edo errentan eman nahi zaizkien ondasunetan gauzatu nahi badira.

f) Jarduketa eskatzen duen toki-erakundearena ez den titulartasuna duten ondasunetan gauzatu nahi badira, edo haren erabilera haren alde lagata ez badago, erreferentziatzen hartuta dagoen deialdiko eskabideak aurkezteko epearen amaiera-data.

Horrela, f) puntu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ondasunen titulartzat hartuko da erakundea, baldin eta ondasun horiek haren izenean erregistratuta badaude jabetza-erregistroan, edo haren ondasunen inbentarioan agertzen badira. Era berean, erabilera-lagapena onartuko da gutxienez 16 urteko iraupena duenean, deialdiaren ekitaldiari dagokion urteko urtarrilaren 1etik aurrera zenbatzen hasita.

g) Dagokion deialdia ebatzi aurretik hasi edo gauzatu badira, salbu eta Arabako Foru Aldundian arlo horretan eskumena duen sailaren alde aurreko baimena badago.

h) Egitez, obra bat baino gehiago egitea dakartenak, nahiz eta eskabide-orri berean eta obra guztietarako baterako aurrekontu bakarrarekin aurkeztu.

i) Aurreko deialdian programa honen kargura dirulaguntza jaso duten baina toki-erakundeak uko egin diolako edo betebeharrak bete ez dituelako ordaindu ez zaien erakundeak egindakoak badira.

j) Behar bezala justifikatutako arrazoiengatik, arlo horretan eskumena duen zerbitzuaren iritziz ez bada komenigarria eskatutako jarduketa gauzatzea.

k) Titulu honetan jasotako edozein baldintza betetzen ez badute.

2. Obra Txikiak Gauzatzeko programan bideratzeko eskatu diren obrak ezin izango dira eskatu Auzo Harremanak Sustatzeko Ekimenetarako programan, ekitaldi berari dagozkion deialdietan. Halakorik gertatuz gero, bi eskaerak baztertutzat joko dira.

3. Era berean, obra txikiak gauzatzeko programan bideratzeko eskatutako obrak ezin izango dira eskatu obra eta zerbitzuen foru planaren programan. Hori gertatuz gero, obra txikiak gauzatzeko programaren kargura egindako eskaera baztertutzat joko da. Obra txikiak gauzatzeko dirulaguntza eman ondoren obra eskatzen bada obra eta zerbitzuen foru planaren kargura, azken hori baliogabetu egingo da.

15. artikulua. 18. artikulua (Laguntzen zenbatekoa) aldatzea. Honela geratuko da idatzita

1. Programa honen kargura eman beharreko laguntzak kalkulatzeko, diruz lagundu daitekeen aurrekontuari dagokion dirulaguntzaren ehunekoa aplikatuko da, artikulua honen 2. apartatuan ezarritakoaren arabera zehaztuta. Aplikatu beharreko dirulaguntzaren ehunekoa eskema honen arabera zehaztuko da:

a. Diruz lagundu daitekeen aurrekontua 15.000,00 eurokoa edo txikiagoa bada, aplikatu beharreko ehunekoa ehuneko 90 izango da.

b. Diruz lagundu daitekeen aurrekontua 15.000,00 eurotik gorakoa eta 40.000,00 eurotik beherakoa bada, formula hau aplikatuz lortuko da aplikatu beharreko ehunekoa:

$$\% = 90 - [((\text{Diruz lagundu daitekeen aurrekontua} - 15.000)) / (1.000)].$$

2. Diruz lagundu daitekeen aurrekontua zehaztea.

2.1. Argiteria publikorako luminariak instalatzeko edo zolatzeko obrak egiteko diren edo halako lanak jasotzen dituzten eskabideen kasuan izan ezik, diruz lagundu daitekeen aurrekontua aurkeztutako aurrekontuarekin bat etorriko da, BEZa barne, diruz laguntzekoak ez diren kapituluak eta/edo partidak deskontatu ondoren.

2.2. Zolatzeko obrak egiteko diren edo halako lanak jasotzen dituzten eskabideen kasuan, kontzeptu horri dagokion diruz lagundu daitekeen aurrekontua lortzeko, zenbateko hauetatik txikiena hartuko da kontuan:

a. Artikulu honen 2.1 apartatuan xedatutakoa aplikatuz lortzen den diruz laguntzeko moduko aurrekontua.

b. Akabera motaren arabera, zolatu nahi diren azalerei ondoren adierazten diren zoladura-moduluetatik dagozkionak aplikatzearen ondorioz lortutako zenbatekoa:

— Hormigoia: 56,39 euro/m².

— Maila estetiko handiagoko beste akabera batzuk: 84,49 euro/m².

— Aglomeratu asfaltikoa: 44,19 euro/m².

- Errefortzu aglomeratua / gainazal-tratamendua: 24,77 euro/m².
- Zabor-legarra, hartxintxarra edo antzeko beste batzuk: 9,54 euro/m².

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ulertuko da prezio horietan sartuta daudela zoladura osorik egiteko behar diren kostu guztiak. Ez dira sartzen elementu linealak edo puntualak, hala nola zintarriak, erretenak, txorkoak, hustubideak, etab.

2.3. Argiteria publikorako luminariak instalatzeko diren edo halako lanak jasotzen dituzten eskabideen kasuan, kontzeptu horri dagokion diruz lagundu daitekeen aurrekontua lortzeko, zenbateko hauetatik txikiena hartuko da kontuan:

a. Artikulu honen 2.1 apartatuan xedatutakoa aplikatuz lortzen den diruz laguntzeko moduko aurrekontua.

b. Instalatu beharreko luminaria motaren arabera, jarraian adierazitako prezio unitarioak aplikatuz ateratzen den zenbatekoa:

- Zutabe/paldo berriaren gaineko luminaria: 1.308,86 euro/un.
- Beso berriaren gaineko luminaria: 872,57 euro/un.
- Berrerabilitako zutabe/beso/paldo gaineko luminaria: 560,94 euro/un.

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ulertuko da prezio horretan sartuta daudela argi-puntu bakoitza instalatzeko eta konektatzeko behar diren kostu guztiak.

3. Aurreko 2.2 eta 2.3 puntuetan aipatutako moduluak eta prezio unitarioak urtero eguneratu ahal izango dira deialdi bakoitzean. Era berean, deialdi bakoitzean modulu edo prezio unitario berriak sartu ahal izango dira.

4. Emandako dirulaguntza eta dirulaguntzaren ehunekoa ez dira inola ere handituko. Hala ere, dirulaguntza beherantz berrikusi ahal izango da, benetan gauzatutako jarduketaren arabera, obra amaitu ondoren aurkeztutako fakturak kontuan hartuz, arau honetan ezarritako moduluen aplikazioa kontuan hartuz edo obren jarraipena eta kontrola egiteko ardura duten foru-teknikariek egindako balorazioa kontuan hartuz.

16. artikulua. 19. artikuluko (Deialdia eta eskariak) 1. apartatua aldatzea eta 2.2 azpiapartatua kentzea. Honela geratuko da idatzita

1. Urtero, prozedura ebatzi aurreko ekitaldian, dagokion laguntza-deialdia onartuko da. Deialdi hori ALHAOn argitaratuko da eta urte bakoitzeko maiatzaren 15a baino lehen ebatziko da.

2. 2.2 azpiapartatua kentzea.

17. artikulua. 20. artikuluko (Emakida araubidea eta hautatzeko irizpideak) 2. eta 4. apartatuak aldatzea. Honela geratuko da idatzita

2. Toki-erakunde eskatzailearen zuzenbidezko biztanleriaren arabera, deialdi bakoitza argitaratzen den aurrekontu-ekitaldiari dagokion Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza (FOFEL) aplikatzeko Toki Administrazioiko Sailak erabili dituen datuak kontuan hartuta, honako puntu hauek esleituko dira:

- (a) 50 biztanle edo gutxiagoko zuzenbidezko biztanleria duten toki-erakundeak: 30 puntu.
- (b) 50 biztanle baino gehiago eta 100 biztanle (100 barne) arteko zuzenbidezko biztanleria duten toki-erakundeak: 20 puntu.
- (c) 100 biztanle baino gehiago eta 500 biztanle (500 barne) arteko zuzenbidezko biztanleria duten toki-erakundeak: 10 puntu.
- (d) 500 biztanle baino gehiagoko zuzenbidezko biztanleria duten toki-erakundeak: 5 puntu.

4. Kuadrillek eta udalek egindako eskabideei dagokienez, eskatutako jarduketa Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen Foru Arauan jasotako ekipamenduei dagozkien eraikinetan egin nahi denean, zuzenbidezko biztanleriatzat hartuko da toki-erakundearen biztanleria osoa, eta gainerako jarduketetarako, berriz, horiek kokatuta dauden guneei dagokiena.

Kontzejuek egindako eskaeretakako, eskatutako jarduketa kokatzen den guneko edo gu-neetako biztanleria hartuko da zuzenbidezko biztanleriatzat, salbu eta eskatutako jarduketa kontzeju-geletarako bada; kasu horretan, kontzejuko biztanleria osoa hartuko da kontuan.

18. artikulua. 22. artikuluko (Dirulaguntza finkatu, ordaindu) 1. eta 2. apartatuak aldatzea eta 1 bis apartatua gehitzea. Honela geratuko da idatzita

1. Dirulaguntza honako agiri hauek aurkeztu ondoren ordainduko da:

a) Udalaren obra-lizentzia edo, obra-lizentziarik behar ez duten obren kasuan edo sustatzailea udala bera denean, udaleko hirigintza arloaren aholkularitza esleituta daukan teknikariaren aldeko txostena.

b) Eskatutako jarduketa gauzatzeko behar diren baimen sektorialak.

c) Gauzatutako jarduerari dagozkion fakturak, behar bezala banakatuta eta dirulaguntzaren erakunde onuradunaren izenean jaulkita.

d) Dirulaguntzaren onuradun den erakundeak fakturak onetsi izanaren egiaztagiria.

e) Erantzukizunpeko adierazpena, emandako laguntza justifikatzeko aurkeztutako dokumentazioa jatorrizko dokumentazioarekin guztiz bat datorrela dioena.

f) Deialdian eskatzen den beste edozein agiri.

Aurreko paragrafoan adierazitako dokumentazio guztia behar bezala aurkeztu ondoren, arlo horretan eskumena duen zerbitzuak txostena egingo du eta, hala badagokio, dagokion dirulaguntza ordaintzea proposatuko du.

1. bis. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi ondoren, emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 30eko aurrerakina eskatu ahal izango du toki-erakunde onuradunak. Aurrerakina berariaz eskatu beharko du erakunde onuradunak, eta aurrerakin-eskaera aurkeztu eta gehienez ere hilabeteko epean ordainduko da, betiere obrak hasi direla edo berehala egingo direla egiaztatzen bada.

Aurreikusitako aurrerakina bateragarria izango da artikulua honetan aurreikusitako gainerako ordainketekin, eta dirulaguntzaren azken ordainketa egitean deskontatuko da. Obra egiten ez bada edo dirulaguntza edozein arrazoiengatik errebokatzen bada, erakunde onuradunak jasotako aurrerakina itzuli beharko du, dirulaguntzak arautzen dituen foru-araudian ezarritakoaren arabera.

2. Deialdi bakoitzak ezarriko du zein den obrak amaitzeko eta dirulaguntza ordaintzeko eskatutako dokumentazioa aurkezteko azken eguna. Nolanahi ere, muga hori ezingo da izan deialdiari dagokion ekitaldiko abenduaren 31 baino geroagokoa, eta erakundeak ordainketa egiaztatzen duen dokumentazioa bidali beharko du dirulaguntza ordaintzen denetik gehienez ere bi hilabeteko epean.

19. artikulua. 23. artikuluko (Erakunde onuradunen betebeharrak eta erantzukizunak) azken azpiapartatua aldatzea. Honela geratuko da idatzita

— Dirulaguntza jasotzen duten elementuak hamabost urtez mantendu behar dira, bai eta horien helburua edo erabilera ere, ezinbesteko arrazoi justifikatuak daudenean izan ezik.

20. artikulua. 24. artikulua (Dirulaguntza bat baino gehiago aldi berean) aldatzea. Honela geratuko da idatzita

Toki-erakunde onuradunek beste laguntza edo dirulaguntza batzuk lortzen badituzte programa honen kargura diruz lagundutako jarduketak finantzatzeko, laguntzak bateragarriak izango dira haien artean, salbu eta 17 bis 2 eta 3 artikuluan xedatutakoa aplikatzekoa denean, edo laguntza horiek jarduketaren kostuaren ehuneko 100 gainditzen dutenean. Kasu horretan, toki-erakundeek obra txikiak egiteko laguntzen programaren kargura egin beharreko ekarpena ehuneko 100 horretara egokituko da.

21. artikulua. 25. artikulua (Lege araubidea) aldatzea. Honela geratuko da idatzita

Arau honetan eta deialdi bakoitzean berariaz arautzen ez diren alderdi guztietarako, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoa beteko da.

Azken xedapena

Foru-arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta ez zaie aplikatuko dagoeneko argitaratuta dauden deialdiei.

Peñacerrada-Urizaharra, 2026ko maiatzaren 31

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA